



Insohmnio: "Jendeak musikan duen irizpide falta da gaur egungo arazoa"

Duela urte bete sortu berri den Insohmnio rock taldea, Mallabiko eta Ermuko bost lagunek osatzen dute. Abenduan hasi ziren "Animal de noche" lehenengo maketa grabatzen eta martxoarako kalean izango da.

-Noiz sortu zen Insohmnio eta nola?

Talde moduan 2006ko urtarrilean hasi ginen, nahiz eta aurretik hainbat abesti izan. Taldeko bi lagun aspal-ditik ginen ezagunak eta talde ezberdinetan ibilitakoak. Gero, Eibarko Legarreko lokala lortu genuen eta beste bi kide gehitu ziren. Azkenik, Cillo aukeratu genuen ahotserako eta taldea sortu genuen. Izan ere, ahotsarekin askoz errazago eta azkarrago atera ditugu kantak eta errepertorio guztia.

-Zenbat lagunek osatzen duzue taldea?

Bost lagun ari gara Insohmnion: Ivan eta Victorrek gitarra jotzen dute, Gribik baxua, Frankek bateria eta Cillo ahotsa da.

-Zergatik Insohmnio "h"-z?

Aurretik gure izena "Declive" zen; lehenengo kontzertua ematear geundela, interneten begiratzan hasi ginen eta Leoneko talde baktek izen bera zuela enteratu ginen, beraz, izena aldatu behar izan genuen. "Insomnio" abestia gustuko genuen eta izenarekin arazorik egon ez zedin, Insohmnio "h"-z jartzea erabaki zen.

-Zein hizkuntzatan abesten duzue?

Gazteleraz eta bertsioren bat ingelesez egiten dugu.

-Zein musika egiten duzue?

Egia esan, zaila egiten zaigu gure musika definitzea.



Insohmnio taldeko bost kideak.

Rock-a da nagusiki eta distortzioak nahiko metaleroak. Hala ere, talde ezberdinen eragina nabari daiteke gure kantetan. Esaterako, Extremoduro, Metallica... Baina batez ere, rock taldeen eragina dugu.

-Zenbat abesti dituzue?

Gure kantak zazpi dira eta gainerakoak bertsiokak. Extremoduro, Metallica, Sugarless, Reincidentes eta Parabellum-en bertsiokak hain zuzen ere. Normalean kontzertuetako gure errepertorioa zazpi kanta eta bost bertsiok horiek osatzen dute.

-Zenbat kontzertu eskaini dituzue orain arte?

Lau: Zaldibarren, Ermuan, Eibarren eta Soraluzen.

-Maketa grabatzen diharduzue. Zuek ari zarete lan guztia egiten?

Maketa bat grabazio-estudio batean graba daiteke dirutza ordainduz, edo informatikak eskaintzen duen aukeraz balitatuta norberak graba dezake. Gu horretan ari gara abendutik. Egia esan, lan, dedikazio eta pazientzia handia eskatzen du maketa norberak grabatzeak.

-Noizko bukatu nahi duzue lehenengo maketa honen grabazioa?

Urtarrilean bukatzea espero dugu. Izan ere, hurrengo kontzertua, Gandian (Valentzia) lagun baten taber-

nan, martxoaren 3an izango da eta egun horretarako kallean izatea nahiko genuke.

-Maketaren ekoizpen lan guztia zuek egin duzue, baina izan duzue bestelako laguntzarik ezta?

Bai, Jorge Vegak izugarri lagundu digu, kontzertuetan soinu kontuekin, maketarekin... Gure manager-a bera dela esan daiteke. Bestalde, Storbais taldeko Barrutia, LPC taldea, Kubik enpresa eta bertoko langileen aldetik laguntza handia jaso dugu.

-Diru-laguntzarik jasotzen duzue?

Ez, guk gure poltsikotik dirua jartzen dugu musikatresnak erosteko, entsaiztzen dugun lokalean konponketa-lanak egiteko... Hobe ez pentsatzea zenbat

**"Rock-a distortzio
metaleroekin egiten dugu"**

ILEAPAINDEGIA
Iraskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ernua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
estankoa

torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa


PUB YOMY
**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

diru gastatu dugun orain arte!. Momentuz ez dugu dirurik eskatzen jotzeagatik, ordaintzen badigute, fenomeno, diru hori taldean berri inbertitzeko erabiltzen dugu.

-Non entsaiatzen duzue?

Eibarko Legarreko lokalean. Astean hiru egunetan entseatzen dugu, egunean bizpahiru orduz. Lokal horiek Eibako udalak utzita-koak dira eta bertan ari garen taldeok zertxobait ordaintzen dugu, mantentze-lanetarako. Gurekin batera, Ermuko talde asko dau-
de Legarren.

-Nola emango duzue zuen burua ezagutzera?

Kubik enpresakoekin web orrialde bat prestatu nahi dugu, bertan abestiak jarri-ko ditugu jendeak deskarga-tu ahal izateko. Bestalde,

kamisetak atera, kalean kar-telak ipini, interneteko foro-en bitartez... eta nola ez, kontzertuak emanez, 2007an hori da gure asmoa, ahalik eta kontzertu gehien eskaintzea.

-Ermuan noiz jotzeko asmoa duzue?

Segur aski martxoaren bu-kaeran Ermuko tabernaren batean joko dugu, baina oraindik ez dago erabat lo-tuta. Izan ere, 2007an kontzertuak ematen hasten ga-renean, gure asmoa Ermuan lehen bait lehen jotzea da. Martxoan kontzertu bat eta Santixauetan beste bat egi-tea aurreikusten dugu.

-Etorkizunean diskorik grabatzeko aukerarik ikus-ten duzue?

Diskoetxe batean graba-tzea zaila da. Jakin badaki-gu, gaur egun onak diren

"2007an ahalik eta kontzertu gehien eskaini nahi ditugu"

talde pila daudela eta musi-katik bizitzea ia ezinezkoa dela. Gainera, guk egiten dugun musika ez da komer-tziala beraz, diskoetxe bate-kin ez bada, oso zaila da na-barmentzea.

-Jendeak gero eta diru gutxiago musikan inberti-tzea ere, arazo bat dela uste duzue?

Internetetik musika jais-tearena ez zaigu gaizki iru-ditzen, guk egiten dugu eta egiten jarraitzeko asmoa dugu, arazoa guretzat beste bat da: jendeak musikan duen irizpide falta. Izan ere, telebistan saltzen digutena

bakarrik da jendearen gus-tuko eta hori da hain zuzen ere Ermuko taberna gehie-netan jartzen duten musika, noski jendeari hori gusta-tzen zaiolako. Zenbat taber-natan jartzen da rock-a gaur egun Ermuan? Oso toki zeha-tzetan. Azkenean, hedabi-deek gidatzen dituzte gure gustuak ere.

-Ermuan herriko taldeen lana erakutsi eta sustatze-ko zer egin daiteke?

Lehenengo eta behin, mu-sika taldeentzako lokalak prestatu ahal dira Ermuan bertan. Ermuan ganorazko lokalak egongo balira, uste dugu Legarren dauden Er-muko hainbat talde hona etorriko liratekeela. Bestalde, rock musikako kontzer-tuak antolatu daitezke, he-rriko taldeen lana ezagutze-ra emateko.

-2007rako kontzertu egu-tegia nola duzue?

Ez dago gaizki eta guk, kontzertuetan jo nahi dugu. Martxoan Gandian, Bilbon eta Ermuan. Uztailean Gali-zian eta Santixauetan Er-muan. Elorrioren eta Elgoiba-rren jotzea ere aurreikusten dugu, baina ez dugu data ze-hatzik. Horiez gain, irtetzen diren kontzertuetan jotzeko asmoa dugu. Norbaitek gu-rekin harremanetan jarri nahi izanez gero, insohm-nio@gmail.com helbide elektronikora idatz dezake.

Alazne Aiestaran



Insohmnio, Eskilarapeko Ateneoan eskaini zuten kontzertuan.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

DROGETENITTURRI EUSKAL BIRUSA

943 17 93 50

Elexoste

